

AZALPEN-OHARRA

SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN MARTXOAREN 17KO 30/2015 DEKRETUAREN ALDAKETA

Argitalpen-eguna: 2018ko abuztuaren 6a

Argitalpenerako esteka:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018004066>

Indarrean jarri den eguna: 2018ko abuztuaren 1a

Aldaketak:

- Bigarren seme edo alabagatiko laguntzak hirugarren urte batez luzatzea.

2018an bi urte betetzen dituzten bigarren seme edo alabek hirugarren urterako laguntza hori eskatu ahal izango dute dekretuaren aldaketa indarrean jartzen denetik 2018ko abenduaren 31ra arte.

- Seme edo alaba kontzeptua zabaltzea, 18 urte baino gehiago eta 25 baino gutxiago izan, familia-etxean bizi eta gurasoekiko mendekotasun ekonomikoa duten seme-alabak barruan sartzeko.

Laguntzaren zio den semeak edo alabak hurrenkeran izango duen lekua zehaztuko duen familiako seme-alaben kopurua kalkulatzeko, kontuan hartuko dira 25 urte baino gutxiago izan, familia-etxean bizi eta aitarekiko edo amarekiko mendekotasun ekonomikoa duten seme-alabak.

Mendekotasun ekonomikoa dagoela ulertuko da baldin eta semeak edo alabak lanbide arteko urteko gutxieneko soldatatik gorako errentak ez baditu urtean (errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe); hori frogatzeko, laguntzaren eskatzailearen zinpeko aitortpena aurkeztu ahalko da.

Proposatutako aldaketaren xedea da adin nagusikoak baina 25 urtetik beherakoak diren seme-alabak, oraindik familia-etxean bizi badira eta gurasoekiko mendekotasun ekonomikoa badute, familiako seme-alaben guztizko kopuruan sartu ahal izatea; hau da, haiek kopuru horretan sartu ahal izatea, beren neba-arreba adingabeak (egoera diruz lagungarria sortzen dutenak) bigarren, hirugarren edo hurrengo seme edo alabatzen jo ahal izan daitezen, Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuko laguntzak eskatzerakoan.

- Adopzio edo tutoretza kasuetan hasierako eskaerak aurkezteko epea zenbatzen hasteko egunaren aldaketa.

Adopzio edo tutoretza kasuetan, adopzioaren edo tutoretzaren eraketa dagokion erregistro zibileko bulegoan inskribatzen denean hasiko da aurkezpen-epea.

- **Harrerari honela deitzen zaio orain: “zaintzaren delegazioa, adopzioaren aurreko bizikidetzarako”.**

Eta “adopzioaren aurreko bizikidetzarako zaintza-delegazio” hori egiten denean, hau izango da hasierako eskaerak aurkezteko epea: Hiru hilabete, eraketarako administrazio-ebazpenaren dataren hurrengo egunetik hasita, edo laguntza eskatzen duen pertsonari jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edozein izanik ere ebazpen hori irmo bihurtu den eguna.

- **Adopzioari, adopzioaren aurreko bizikidetzarako zaintza-delegazioari edo tutoretzari dagokion urtea jaiotzaren urtearen baliokidetzat hartzea, eta, ondorioz, behar diren mantentze-urteko guztiak ordaintzea, 18 urteen adin-muga bakarrarekin.**

Familian adinaren araberako ordenari dagokiona izango da laguntza, eta inoiz ez dira diruz lagunduko seme edo alaba asimilatuak 18 urte gainditzen ditueneko urteak, Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretua aldatzen duen Dekretuaren proiektuak 3.1 artikuluan ezarritako mugaren arabera.

- **Zaintza eta jagoletza galtzea seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoen espedientea izapidetu bitartean.**

Egoera horrek ez dio eskaera kopuru handi bati eragiten, baina hura arautu beharra dago, adingabearen interes goragokoa zaintzeko eta laguntzen helburua betetzeko, alegia, adingabea mantendu eta zaintzearekin zerikusia duten beharrian ekonomikoak asetzen laguntzeko.

Hona egoera:

- Aitak edo amak seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoa eskatzen du.
- Laguntza-eskaera izapidetzen ari den bitartean, eta ebazpena eman baino lehen, eskatzaileari laguntzaren zio den semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza kentzen zaizkio, genero-indarkeriaren delitua edo beste edozein delitu egiteagatik, eta inguruabar hori organo kudeatzaileari jakinarazten zaio.

Honela ebatzi ahal izango da egoera:

- Laguntza eskuratzeko betekizunak ez betetzea eskatzaileari laguntza ukatzeko arrazoia da.
- Semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza dituen pertsonak laguntza-eskaera aurkeztu ahal izango du ezarritako epe orokorrean; epe hori zaintza eta jagoletza aitortzen dizkion jakinarazpen formala jasotzen duenetik aurrera zenbatuko da, kasua bada.

- Zaintza eta jagoletzaz gabetutako pertsonak hasieran aurkeztutako eskaeraren datak ondorio onuragarriagoak dituzenean, laguntza aitortuko zaio bigarren pertsona horri, erreferentzia gisa harturik lehengo araubiderik onuragarriena, eskuratzeko baldintzak betetzen baditu, betiere. Aurreikuspen horren bidez, bigarren eskaera horri epea kanpo aurkezteagatik ezetza ematea saihestu nahi da.
- **FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUA** oraindik ere uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuak arautzen du, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoak, eta **oraingoan dekretu hori ez da aldatu.**

Familiaren errenta kalkulatzeko, aitaren eta/edo amaren errentak batu behar ditugu.

Familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko, kontuan hartu behar ditugu 18 urtetik beherako seme-alabak.

- **Aldaketa indarrean jarri aurretik aurkeztutako eskaerak, araudi berriarekin diruz lagungarriak izan arren, aldaketaren aurreko araudiarekin diruz lagungarriak EZ badira, ezetsi egingo dira.**

Eskatzaileek **BESTE ESKAERA BAT AURKEZTU BEHARKO DUTE ALDAKETA INDARREAN JARRI ETA GERO.**